

ikus puntua



Bizkaiko ekonomia La economía de Bizkaia #14 iraila/septiembre 2007

Hau txosten ekonomiko zabalago baten laburpena baino ez da,
web honetan eskura daitekeena:/
Versión reducida de un informe económico más amplio disponible en:
www.berrikuntza.bizkaia.net
www.camarabilbao.com

14

Behatokia		Observatorio
Bizkaiko ekonomiak indartsu jarraitzen du aurrera eta susperraldi honen protagonistak industria sektorea, inbertsioak eta esportazioak izan dira.	+	La economía de Bizkaia continúa boyante, con un apreciable protagonismo del sector industrial, la inversión y las exportaciones.
Bizkaiko Industriaren Konfiantza Adierazleak nabarmen egin du gora aurreko urtekoarekin alderatuta. Hala ere, erritmoa moteltzen joango dela dirudi.	+	El Indicador de Confianza de la Industria de Bizkaia mantiene un nivel claramente superior al del año anterior, aunque parece que el ritmo de avance tiende a moderarse ligeramente.
Eskabide-zorroak iazkoaren antzeko mailan jarraitzen du, baina argi ikusten da urtearen bigarren bihilekoan baino jarduera gutxiago dagoela.	=	La cartera de pedidos total se mantiene a un nivel muy similar al de un año antes pero se muestra claramente menos activa que en el segundo bimestre.
Higiezinen merkatuaren makalaldiak ez dirudi eragin handirik izan duenik eraikuntzaren sektorean .	+	El enfriamiento del mercado inmobiliario no parece afectar todavía de forma importante al sector de la construcción .
Zerbitzuen sektorean oro har hazkundera erregistratu da.	+	En el sector de servicios el tono general es más expansivo.
Portuko eta aireportuko salgai eta bidaiarien trafikoaren bilakaera baikorrak urte bukaeran marka berriak lortzeko aukera dagoela erakusten du.	+	La evolución de los tráficoes en el Puerto y Aeropuerto permiten avanzar nuevos record al finalizar el año.
Esportazioek nahiko dinamikoak izaten jarraitzen dute, inportazioetan atzera pausu nabaria antzematen den bitartean.	+	Las exportaciones continúan mostrándose bastante dinámicas mientras que las importaciones presentan una notable reducción en su progresión.
2007ko lehen sei hilabeteetan 1.986 enpresa berri sortu dira Bizkaian, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 325 gehiago.	+	En el primer semestre de 2007 se crearon en Bizkaia un total de 1.986 nuevas empresas , cifra que supone un aumento de 325 sociedades con relación al mismo período del año anterior.
Gizon eta emakumeen langabezi tasa orekatu egin da eta % 4,3koa izan da, hau da, 0,8 puntu txikiagoa da aurreko urtearekin alderatuta.	+	Se equipara la tasa de paro masculina y femenina en un 4,3%, 0,8 puntos por debajo de un año antes.
Aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoa finkatzen joango da nazioartean. Gureari begiratuta, ikusteko dago oraindik zein puntutaraino ordezkatzuko duten industriak eta zerbitzuek orain arte eraikuntzak izandako protagonismoa.	=	Las previsiones apuntan hacia un entorno internacional en el que se va consolidando el crecimiento. A un nivel más cercano, habrá que ver hasta qué punto la industria y los servicios van sustituyendo el protagonismo que ha venido manteniendo hasta ahora la construcción.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Berrikuntza eta Ekonomi
Sustapen Saila
Departamento de Innovación
y Promoción Económica



BILBOKO
MERKATARITZA
GANBERA

CÁMARA DE
COMERCIO
DE BILBAO

Industria


Industriak gora egiten jarraitzen du, nahiz eta azken aldiko indarraldiaren ostean hazkundearen erritmoa poliki-poliki moteltzen doan.

Horrela, Bizkaiko Industriaren Konfiantza Adierazleak gora egin duen arren aurreko urtekoarekin alderatuta, badirudi adierazlearen hazkunde erritmoa moteltzen doala. Motelaldi horren arrazoiaren artean, eskabide-zorroaren dinamismoaren makalaldia eta aurreikuspenen moderazioa aipa ditzakegu.

Industria

La industria continúa en franca expansión, aunque parece que el ritmo de avance tiende a moderarse ligeramente tras el fuerte impulso de los últimos tiempos.

De este modo, el Indicador de Confianza de la Industria de Bizkaia, aunque mantiene un nivel claramente superior al de un año antes, parece suavizar su línea de crecimiento, propiciado por un menor dinamismo de la cartera de pedidos y una moderación de las perspectivas.



Ekoizpenari dagokionez, inkestatutako enpresen %49k gora egin du 2007ko hirugarren bihilekoan, martxo-apirileko %36a gaindituz eta aurreko urteko portzentajera hurbilduz (%50).

Eskabide-zorroak iazko antzeko mailan jarraitzen du (%16k gora egin du, 2006ko %15aren aldean), baina argi ikusten da urtearen bigarren bihilekoan baino jarduera gutxiago dagoela (%24ko iguera). Bilakaera ezkorragoa iragartzen da.

Industri arloko produkzio gaitasunaren erabilerak gora egin du 2006ko hirugarren bihilekoarekin alderatuta, horrela beraz, erabili gabeko produkzio gaitasuna %14koa izan da, aurreko urtekoa baino puntu bat baxuagoa alegia.

Ekoizpena, eskabide-zorroa, salmentak eta enplegua 2006an baino egonkorragoak izango direla iragartzen da. Aurreikuspen positiboek behera egin dute eta enpleguaren kasuan saldo garbia negatiboa da.

Examinando la evolución de la producción se puede observar que en el tercer bimestre de 2007 aumenta en el 49% de las industrias encuestadas, un porcentaje superior al 36% de marzo-abril y similar al 50% de un año antes.

La cartera de pedidos total también se mantiene a un nivel muy similar al de un año antes (aumenta en el 16% de las empresas frente al 15% de 2006) pero se muestra claramente menos activa que en el segundo bimestre (aumentó en el 24%). Las perspectivas muestran también opiniones menos optimistas.

La capacidad productiva industrial aumenta ligeramente con respecto al tercer bimestre de 2006, de modo que presenta un nivel no utilizado del 14%, un punto por debajo del año anterior.

Las expectativas, tanto de producción como de cartera de pedidos, ventas y empleo, se muestran más estables que en 2006, con un menor peso de las opiniones más favorables, e incluso en el caso del empleo el saldo neto muestra un valor negativo.

Eraikuntza

Esku artean ditugun datuak kontuan hartuta, ez da aldaketa garrantzitsurik antzematen eraikuntzaren jardura erritmoan, nahiz eta higiezinaren merkatuan halako makalaldi bat sumatzen den.

2007ko lehen bost hilabeteetan lizitazio ofizialak % 71,2 egin du gora. Eraikuntzaren bilakaera obra zibilarena baino dinamikoagoa izan da, nahiz eta bi kasuetan hazkunde handia izan den. Babes ofizialeko etxebizitzaren bilakaera aldiz ez da horren baikorra. Izan ere, etxebizitzaren eraikuntzaren hasierak atzerapenak izan ditu.

Construcción

Por lo que respecta al sector de la construcción, con los datos disponibles no se aprecia ninguna variación significativa en el ritmo de actividad, a pesar de las señales de enfriamiento del mercado inmobiliario.

En los primeros cinco meses de 2007 la licitación oficial se ha incrementado en un 71,2%, con una evolución más dinámica en la edificación que en la obra civil, aunque en ambos casos con incrementos muy elevados. La evolución del subsector de viviendas de protección oficial en el primer semestre no es tan positiva, con apreciable retroceso en la iniciación de viviendas.

Zerbitzuak


Zerbitzuen sektorean oro har hazkundea erregistratu da.

Merkataritzaren Konfiantza Adierazlearen Inkestako emaitzek egonkor jarraitzen dute, nahiz eta azken bi bihilekoetan salmenten kopurua jaitsi egin den eta epe motzera egingo diren salmentak okerragoak izango direla iragartzen den.

Servicios


En el sector que engloba las actividades de servicios el tono general es más expansivo.

En Indicador de Confianza del Comercio Minorista mantiene una situación de estabilidad, aunque en los dos últimos bimestres se puede apreciar un retroceso en el nivel normal de ventas y una visión algo más pesimista de las expectativas a corto plazo.




Aisi-turismo sektoreak eboluzio positiboa izan du 2007ko lehen sei hilabeteetan. Izan ere, bai bidaiarien bai gau-igarotzeen kopurua hazi egin da, % 9 eta % 9,2 hurrenez hurren. Urtarrila eta uztaila bitartean 458.444 bidaiari erregistratu dira Bizkaian, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 37.975 bisitari gehiago. Gau-igarotzeak 835.099 izan dira, hartara, 2006ko lehen sei hilabeteetan erregistratutakoak baino 70.275 gau-igarotze gehiago. Batez beste emandako egun kopurua 1,82 izan da ekainean (1,79 2006ko ekainean) eta okupazio mailak puntu bat gora egin du (% 46,91) aurreko urtearekin alderatuta (% 45,98).

El balance del sector de ocio-turismo en el primer semestre de 2007 se cierra con datos positivos tanto en la llegada de visitantes como en la cifra de pernoctaciones, mostrando incrementos del 9% y 9,2%, respectivamente. De este modo, entre enero y julio llegaron a Bizkaia un total de 458.444 viajeros (37.975 más que en el mismo período del año anterior), mientras que las pernoctaciones alcanzaron un total de 835.099, lo que supone 70.275 más que en el primer semestre de 2006. La estancia media de junio se sitúa en 1,82 (1,79 en junio de 2006) y el grado de ocupación se eleva un punto: 46,91% frente a 45,98%.



Azpiegiturak

Bilboko Portuko salgaien trafikoak handitzen jarraitzen du 2002. urteaz geroztik. Lehen sei hilabeteetako datuen arabera, 18,7 milioi tona erregistratu dira, hots, 2006ko aldi berean baino %5 gehiago. Merkatugai orokorrak % 7 hazi dira, ohikoak %11 eta edukiontzietako merkatugaiak, berriz, % 4. Ontziratutako gabeko solidoen trafikoak % 2 jaitsi da ontziratutako gabeko likidoena % 6 hazi den bitartean. Igoera hori fuel-oil (% 21), gas-oil (% 19) eta gasolinaren (% 23) trafikoaren hazkunderari esker gertatu da.




2007ko lehen sei hilabeteetan ia bi milioi erabiltzaile erregistratu dira Bilbo-Loiu Aireportuan. Aurtengo urtarrila eta ekaina bitartean, Bizkaiko aireportuak 1.975.533 erabiltzaile erregistratu ditu, hau da, 2006ko aldi berean baino %9 gehiago. Horietatik 1.506.143k nazioarteko hegaldiak erabili dituzte eta 468.390k nazioartekoak. Bi hegaldi motek izandako hazkundera %8 baino gehiagokoa izan da. Hegaldi erregularrak % 8,8 igo dira eta charterak % 9,2. Eragiketa kopuruari dagokionez, urtarrila eta ekaina bitartean % 6,6ko hazkundera antzeman da. Guztira 30.875 hegaldi erregistratu dira eta horietatik 8.464 nazioartekoak izan dira.

Infraestructuras

Desde 2002, el Puerto de Bilbao no ha parado de aumentar su tráfico de mercancías. Los últimos datos, correspondientes al primer semestre, registran 18,7 millones de toneladas, un 5% más que en el mismo período de 2006. El tráfico de mercancía general aumentó un 7%, con incremento del 11% en la mercancía general convencional y del 4% en la mercancía en contenedor. El tráfico de graneles sólidos descendió en un 2% y el de graneles líquidos aumentó un 6%, gracias a los incrementos en el tráfico de fuel-oil (21%), gas-oil (19%) y gasolina (23%).

Casi dos millones de pasajeros han pasado por el Aeropuerto de Bilbao-Loiu en los seis primeros meses de 2007. En total, entre enero y junio de este año, el aeropuerto de Bizkaia ha contabilizado 1.974.533 pasajeros, lo que supone un 9% más que en el mismo período de 2006. De este total, 1.506.143 lo hicieron en vuelos domésticos y 468.390 en enlaces internacionales, con incrementos superiores al 8% en ambos casos. Los pasajeros en vuelos regulares aumentaron en un 8,8% y los de los vuelos charter en un 9,2%. En cuanto al número de operaciones, se aprecia un incremento del 6,6% en enero-junio, registrándose un total de 30.875 vuelos, de los que 8.464 son internacionales.



Kanpo merkataritza

2007ko lehen lau hilabeteetan esportazioak % 10,2 igo ziren, inportazioek behera egin zuten bitartean, % 1,7ko igoera besterik ez baitzuten izan. Horrela, 2.406 milioi euroko esportazioak eta 3.514 milioi inportazioak egin ziren.

Ondasunen merkataritza balantzaren saldoak ezkorra izaten jarraitzen du hobera doan arren. Produktu energetikoak kontuan hartzen ez badira, saldoa positibo geratzen da, nahiz eta ez den iristen 2006ko aldi bereko saldora.


Produktu ez energetikoen bilakaera nabarmenki dinamikoagoa da inportazioetan batez ere. Inportazioak eta esportazioak % 26,7 eta % 12,4 hazi dira hurrenez hurren.

Comercio Exterior

En los cuatro primeros meses de 2007 las exportaciones registraron un crecimiento del 10,2% mientras que el incremento de las importaciones continuó mostrando una notable reducción en su progresión y únicamente fue del 1,7%. Así, se realizaron ventas al exterior por valor de 2.406 millones de euros y las compras ascendieron a 3.514 millones.

El saldo de la balanza comercial de bienes, aunque continúa siendo negativo, reduce su valor y, si se excluyen los productos energéticos, el saldo pasa a ser positivo aunque en menor cuantía que en igual período de 2006.

La evolución de los productos no energéticos es claramente más dinámica, sobre todo en las importaciones que se incrementan en un 26,7%, mientras que las exportaciones aumentaron en un 12,4%.



Enpresa dinamismoa


2007ko lehen sei hilabeteetan 1.986 sozietate berri sortu dira Bizkaian eta jarritako kapitala 329 milioi eurokoa izan da. Aurreko urteko aldi berean sortutako sozietate berriak kontuan hartzen badira (1.661 enpresa), aurtan 325 sozietate berri gehiago sortu direla ikusten da.

Berrirori ere, sortutako enpresa berrien gehiengoa zerbitzu sektorearekin lotuta dago (% 82). Gainera 2006ko aldi bereko kopuruarekin alderatzen bada, 275 enpresa gehiago sortu direla antzeman daiteke. Eraikuntzaren sektorean 372 enpresa berri sortu dira (2006an baino 55 enpresa gehiago) eta industrian 276, hau da, aurreko urtean baino zortzi gutxiago.

Dinamismo empresarial

En los seis primeros meses de 2006 se han constituido en Bizkaia un total de 1.986 nuevas sociedades, con un capital aportado que asciende a 329 millones de euros. Esta cifra supone un incremento en 325 nuevas sociedades sobre la cifra del mismo período del pasado año, que se situó en 1.661 empresas.

Una vez más las actividades relacionadas con el sector de servicios ocupan el primer puesto con un 82% de las nuevas empresas creadas, habiéndose incrementado además en 275 con respecto al primer semestre de 2006. En el sector de la construcción se crearon 372 nuevas empresas (55 más que en el primer semestre de 2006) y en la industria fueron 276 las nuevas sociedades constituidas, lo que supone ocho menos que en el año anterior.



Lan merkatua


2007ko bigarren hiruhilekoan Bizkaiko langabezi tasa % 4,3koa izan da, hots, 2007ko lehen hiru hilabeteetan baino 2 hamarren gorago kokatu da eta 2006ko aldi berean baino 0,8 puntu beherago. Gainera emakumeen eta gizonen langabezi tasa orekatu egin da.

491.000 pertsona ari dira lanean, hau da, urte bat lehenago baino 7.300 pertsona gehiago (% 1,5eko igoera). Urteko bigarren hiruhilekoan 22.100 pertsona dago langabezian, hau da, 4.100 langabetu gutxiago dago, beraz, -%15,6 jaitsi da urtearteko tasa. Poliki-poliki kontratu mugagabea daukaten langile kopurua gora doa, izan ere, 2007ko bigarren hiruhilekoan 318.900 langilek zuten mota horretako kontratua: aurreko urtean baino 30.700 langile gehiagok eta 6.700 gehiagok aurtengo lehenengo hiruhilekoarekin alderatzen bada.

Mercado de trabajo

En el segundo trimestre de 2007 la tasa de paro de Bizkaia se sitúa en el 4,3%, 2 décimas por encima de la del primer trimestre de 2007 y 0,8 puntos por debajo de la correspondiente al mismo trimestre de 2006, equiparándose además el desempleo femenino y el masculino.

La población ocupada se sitúa en 491.000 personas lo que supone 7.300 más que un año antes (incremento del 1,5%). El número de parados se estima en 22.100 en este segundo trimestre del año, con una disminución en 4.100 lo que supone un descenso del -15,6% en tasa interanual. Destaca el aumento paulatino en el número de asalariados con contrato indefinido, ya que en el segundo trimestre de 2007 se situaban en 318.900, con un aumento en 30.700 en un año, y en 6.700 sobre el primer trimestre del presente año.



BIZKAIKO EKONOMI ADIERAZLEAK	Iturria	Epea	2006	2007	% variac.
JARDUERA					
- Industriaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Maiatza-ekaina	-2	3	--
- Industri Produktzioaren Indizea (1)	EUSTAT	Ekaina	5,1	4,3	--
- Industriako Energia Elektrikoaren Kontsumoa (milaka MWh)	IBERDROLA	Urtarrila-ekaina	2.437	2.596	6,5
- Produktzio Gaitasunaren Erabilera (%)	CCB	Maiatza-ekaina	85	86	--
- Eskabide-zorroa (2)	CCB	Maiatza-ekaina	-17	-6	--
- Lizitazio Ofiziala (milioi euro)	SEOPAN	Urtarrila-maiatza	310	531	71,3
- Bilboko Portuko merkatugaien Trafikoa (milaka tona.)	AUT. PORT.	Urtarrila-ekaina	17.888	18.747	4,8
- Loiu Aireportuko bidaia-erabiltzaile Trafikoa (milaka pertsona)	AENA	Urtarrila-ekaina	1.821	1.983	8,9
- Gau Igarotzeak hoteletan (milaka pertsona)	EUSTAT	Urtarrila-ekaina	765	835	9,1
- Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Maiatza-ekaina	-29	-14	--
ESKABIDE ETA PREZIOAK					
- Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea	FCVN	II. hiruhilekoa	97	100	--
- Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarrila-ekaina	15.412	14.723	-4,5
- Industri Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarrila-ekaina	3.625	3.651	0,7
- Bizkaiko KPI	INE	Ekaina	100,6	103,1	2,5
- Txikizkako Merkataritzaren salmenten Indizea (3)	EUSTAT	II. hiruhilekoa	118,1	103,1	2,5
LAN MERKATUA					
- Biztanle Okupatuak (milaka pertsona)	EUSTAT	II. hiruhilekoa	483,7	491,0	1,5
- Biztanle Langabetuak (milaka pertsona)	EUSTAT	II. hiruhilekoa	26,2	22,1	-15,6
- Langabezi Tasa (%)	EUSTAT	II. hiruhilekoa	5,1	4,3	--
- Erregistraturiko Langabezia (milaka pertsona)	INEM	Ekaina	43,3	39,7	-8,3
- Gizarte Segurantzako Afiliatuak (milaka pertsona)	MTAS	Ekaina	476,0	488,4	2,6
KANPO SEKTOREA					
- Esportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarrila-apirila	2.183	2.406	10,2
- Inportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarrila-apirila	3.456	3.514	1,7
ENPRESA DINAMISMOA					
- Sozietateen sorrera	CCB	Urtarrila-ekaina	1.661	1.986	19,6

- (1) Aurreko urteko aldi berarekin konparatuz izandako gehikuntza
(2) Erantzunen saldo garbia
(3) Aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren gaineko gehikuntza

INDICADORES ECONÓMICOS DE BIZKAIA	Fuente	Período	2006	2007	% variac.
ACTIVIDAD					
- Indicador de Confianza de la Industria	CCB	Mayo-junio	-2	3	--
- Índice de Producción Industrial (1)	EUSTAT	Junio	5,1	4,3	--
- Cons. de Energía Eléctrica en la Industria (miles MWh)	IBERDROLA	Enero-junio	2.437	2.596	6,5
- Utilización de la Capacidad Productiva (%)	CCB	Mayo-junio	85	86	--
- Nivel de la cartera de pedidos (2)	CCB	Mayo-junio	-17	-6	--
- Licitación Oficial (millones euros)	SEOPAN	Enero-mayo	310	531	71,3
- Tráfico de mercancías Puerto de Bilbao (miles Tm.)	AUT. PORT.	Enero-junio	17.888	18.747	4,8
- Tráfico de pasajeros Aeropuerto Loiu (miles personas)	AENA	Enero-junio	1.821	1.983	8,9
- Pernoctaciones en hoteles (miles de personas)	EUSTAT	Enero-junio	765	835	9,1
- Indicador de confianza del Comercio	CCB	Mayo-junio	-29	-14	--
DEMANDA Y PRECIOS					
- Índice de confianza del Consumidor	FCVN	II trimestre	97	100	--
- Matriculación de Automóviles	DGT	Enero-junio	15.412	14.723	-4,5
- Matriculación de Vehículos Industriales	DGT	Enero-junio	3.625	3.651	0,7
- IPC Bizkaia	INE	Junio	100,6	103,1	2,5
- Índice de Ventas del Comercio Minorista(3)	EUSTAT	II trimestre	118,1	103,1	2,5
MERCADO LABORAL					
- Población Ocupada (miles personas)	EUSTAT	II trimestre	483,7	491,0	1,5
- Población Parada (miles personas)	EUSTAT	II trimestre	26,2	22,1	-15,6
- Tasa de Paro (%)	EUSTAT	II trimestre	5,1	4,3	--
- Paro registrado (miles personas)	INEM	Junio	43,3	39,7	-8,3
- Afiliados a la Seguridad Social (miles personas)	MTAS	Junio	476,0	488,4	2,6
SECTOR EXTERIOR					
- Exportaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero-abril	2.183	2.406	10,2
- Importaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero-abril	3.456	3.514	1,7
DINAMISMO EMPRESARIAL					
- Creación de sociedades	CCB	Enero-junio	1.661	1.986	19,6

- (1) Incremento con relación al mismo periodo del año anterior. Datos corregidos a efecto de calendario
(2) Saldo neto de respuestas
(3) Incremento acumulado sobre el mismo periodo del año anterior

